

Ikerrek eta Anek segitzen dute izen ugariak izaten

Gurasoek euskal izen bakunetara jotzen dute

1996tik hona, Ane da neska-izena aukeratzeko orduan gurasoen kutunena. Informazioa Eustatek jakinarazi du, Euskal AEn 2006-2008 artean jaiotakoei ipinitako izenez ari delarik. Bigarren Uxue, hirugarren Nahia, gero Irati, June eta Naroa.

Ikerrek ere eutsi egiten dio gurasoen gustukoena izateari; ondoren, Jon eta Unai. Eta gero Aimar, Markel eta Ander.

Erregistro Zibilak gehienez bi izen bakun edo konposatu bat jartzeko aukera ematen du; gurasoek bakun batera jotzen dute. Ehun izen ugarienen artean Jon Ander konposatua bakarrik agertzen da, mutilentzakoek ari garela; Mariarekin osatutako neskentzakoak, hain ugariak zirenak, ez dira agertu ere egiten.

Izen bereko grafia ezberdinak

Euskal izenak dira nagusi, batzuetan bi grafia agertzen direlarik: Ane-Anne, Itxaso-Itsaso, Leire-Leyre, Jon-Ion, Aritz-Haritz. Bikote hauek denak, Ion izan ezik, 100 ugarienen artean daude.

Maria eta Miren bikotean izan ezik, izen baten euskal forma nagusitzen da; horixe gertatzen da Ane-Ana, Xabier-Javier, Jon-Juan, Mikel-Miguel bikoteetan.

2008ko estatistikan 1.793 neska-izen agertzen dira, eta 1.713 mutil-izen. Horietatik, behin bakarrik agertzen dira 1.239 neska-izen eta 1.256 mutil-izen. Izen txinatarak, afrikarrak, arabiarak, italiarrak, anglo-saxoiak e.a. agertzen direlarik. Erabilitako izen-kopurua, 1999tik, %71,3 hazi da nesken artean eta bikoiztu mutilenean.

Amen artean, gehien azaltzen den izena, Ainhoa; aiten artean, Aitor

Hona hemen 2006/2008 artean ama izan ziren emakumeen izen ugariak: Ainhoa, Susana, Sonia, Nerea, Amaia, Monica, Leire, Marta, Cristina eta Maria. Emakume hauek diktadura bukatu/demokrazia hasi (1969-1979) zen garaian jaio ziren; orduan aukeratuenak bakunak ziren, eta erdal izenak sarriago euskal izenak baino. Amen %20 pasak Mariarekin osatutako konposatutako izen bat zuten.

2006/2008 artean aita izan zirenen arteko izen ugariak: Aitor, Javier, Francisco Javier, Iñigo, Oscar, Asier, Alberto, Jose Antonio, Roberto y Jose Luis. Diktaturaren bukaera aldera (1967/1977) jaiotako gizonak; izen konposatuak baziren eta euskal izenak oso bakanka.

1. taula: 2006, 2007 eta 2008 urteetako ponte-izen aukeratuenak

	Emakumeak			Gizonak		
	Izena	Maiztasuna	%	Izena	Maiztasuna	%
1	Ane	849	2,83	Iker	1.113	3,48
2	Uxue	840	2,80	Jon	873	2,73
3	Nahia	760	2,53	Unai	873	2,73
4	Irati	752	2,51	Aimar	870	2,72
5	June	736	2,45	Markel	864	2,70
6	Naroa	616	2,05	Ander	844	2,64
7	Izaro	594	1,98	Oier	834	2,61
8	Leire	533	1,78	Eneko	782	2,45
9	Lucía	504	1,68	Mikel	780	2,44
10	Nora	471	1,57	Asier	669	2,09
11	Maialen	461	1,54	Ibai	624	1,95
12	Naia	453	1,51	Julen	601	1,88
13	Paula	451	1,50	Unax	596	1,87
14	Haizea	443	1,48	Aitor	575	1,80
15	Nerea	415	1,38	Xabier	475	1,49
16	Sara	360	1,20	Beñat	405	1,27
17	Maria/María	357	1,19	Aritz	388	1,21
18	Eider	334	1,11	Gorka	318	1,00
19	Maddi	331	1,10	Adrian/Adrián	312	0,98
20	Iraia	323	1,08	Iñigo	310	0,97
21	Maider	323	1,08	Alain	298	0,93
22	Irene	305	1,02	Pablo	293	0,92
23	Garazi	294	0,98	Martin/Martín	265	0,83
24	Ainhua	255	0,85	Urko	264	0,83
25	Malen	230	0,77	Lander	250	0,78

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

[JAOITZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[JAOITZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua](#)